

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTOMAÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren kontribuzio errolda, eta borondatezko epean pagatzeko moduan jartzea 2018ko laugarren hiruilekoko ordainagiriak

Prestatu delarik Artomañan etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2018ko laugarren hiruilekoko zergadun errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun balioudenez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertze eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek Artomañako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, zergen foru arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea martxoaren 14an hasi eta apirilaren 14an bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei apirilaren 14an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Artomañako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artomaña, 2019ko otsailaren 5a

Lehendakaria

JESÚS MARIA LARREA SOJO